

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**14/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 27koa, Arabako Teknologia Parkea Zaintzeko Hirigintza Erakundearen zuzendaritza organoan egindako aldaketa, hain zuzen, Administrazio Kontseiluko karguak berritzea, Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa**

#### AURREKARIAK

Lehenengoa. Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2017ko urtarrilaren 14ko sarrera data duen idazkiaren bidez, "Arabako Teknologia Parkea" Zaintzeko Hirigintza Erakundeko Administrazio Kontseiluko kideak berri eman dio Arabako Foru Aldundiari, aldaketa hori Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskriba dezan.

Bigarrena. Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen Saileko diputatuaren azaroaren 20ko 743/1996 Foru Aginduaren bidez inskribatu zen "Arabako Teknologia Parkea" Zaintzeko Hirigintza Erakundea, Arabako Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan.

#### OINARRIAK

Lehenengoa. Arabako Teknologia Parkea Zaintzeko Hirigintza Erakundeko Administrazio Kontseiluko idazkariak egiaztatzen duenez, 2019ko abenduaren 18an egindako aparteko batzarrak erabaki zuen lehendakari, idazkari, diruzain eta kide karguak hiru urterako izendatzea.

Bigarrena. Hirigintza Kudeatzeko Arautegiak 27. artikuluan xedatzen du Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatuko direla Hirigintza Erakunde Laguntzaileetan gertatzen diren gorabeherak, hala nola erakundearen gobernu eta administrazioaz arduratzen diren pertsonen izendapenak eta kargutik kentzeak.

Hirugarrena. Erakundearen izandako aldaketak eta haiek erregistroan inskribatzeko proposamena onartzen zituen txosten arrazoitua egin du Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agindua ematea Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatzeko "Arabako Teknologia Parkea" Zaintzeko Hirigintza Erakundearen izandako aldaketa, Administrazio Kontseiluko karguak berritzeari buruzkoa. Kargu horiek kauek dira:

Idazkaria: David Montero de la Torre;

Diruzaina: Margarita Pérez de Zabalza Lorenzana;

Batzordekideak: Alberto Belamendia Rey, Feliciano Marquinez López de Erenchun, Iker del Valle Morillo eta Miguel Ángel García-Fresca Frías.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 27a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**